

TRAPUZKO PANPINA (XORROXIN, 21 URTE)

“Askatasun haizea
balaz gelditu nahi ohi du
ero astoak,
tiranoak!”
J. ARTZE

Hotzez dardaraz nago, nire gorputzetik ia atera beharrean. Zorabio amaiezin bat egin da neure buruaren jabe. Jendez inguratuta egon arren, bakardadearen esku beltzek ferekatzen naute gauero loak har nazan.

Hasiera baten gehiegizkoak irizten nituen nire bidaikideen algara eta itxaropenak, beldur garrasi ito bilakatu dira.

Gose naiz; eta urez inguratuta banago ere badira hiru egun ezer edaten ez dudala.

Amak eman zidan ispilu txikian islatzen den begirada galduari so ematen ditut orduak eta begi bietatik jausten diren malko lehor, ikusezinak xukatu ezinik igarotzen dut eguna. Ia galdua dut burua...

Batek baino gehiagok egin du bere buruaz beste itsasora boteaz eta beste hainbeste hil dira bidaia jasan ezinda.

Panpina zahar bat da zulo ilun honetan dudan lagun bakarra; nire itxaropen eta beldurrak entzun eta ulertzen dituen.

Atzo sekulako ekaitzak harrapatu gintuen bere hatzaparretan eta katuak saguarekin, hil aurretik, jolasten duen bezala jolastu zen gurekin.

Blai eginda nago. Hotz naiz; gose; egarri.

Panpina barrez hasi da, inoiz inora helduko ez garela oihukatuz. Itsaso zabalean galdurik gaudela esanaz.

Isiltzeko erregutu diot baina nire negar-zotinei jaramonik egin gabe txilioka jarraitu du. Lasaitu denean, nire bihotz nekatuari ezagun egin zaion kantu bat abesteari ekin dio. Amak txikitan lo egin nezan abesten zidan kantua ezpainetan zuela lokartu gara biok.

Senideekin egin dut amets. Amaren goxotasuna, aitaren sendotasuna, anai-arreben babesak... Eurekin igaro nuen azken unea izan dut buruan lotan nengoen artean. Portu iluna, hotzikarak, negarrak, besarkadak, muxuak, hitz goxoak... itxaropena.

Goizean, begiak bustita esnatu naiz lokartu aurretik bero izandako malko hoztuen arrastoa masailetan nuela. Ezertarako gogorik ez dut. Trapuzko panpina zaharrak abesten jarraitzen du etengabe.

Hotz naiz; gose; egarri.

Ingurukoen ahotsak entzuten ditut baina ez dut inor ikusten. Panpina eta biok bakarrik gaude itsaso zabalaren erdian.

Amak oparitu zidan ispilu txikian ez dut nire aurpegia ezagutzen; trapuzko aurpegi bat ikusten dut hezur-haragizko

begitarte beltzaranaren ordezt, plastikozko begiak garai batean bizi-poza islatzen zuten begi beltzen ordezt, artilezko ile zikina zetaren pareko kirruen ordezt eta ireki ezin dudan ahoa; norbaitek, noizbait, margotu zuen aho gorri fin eta irribarretsua. Ispilua lurrera jaurti dut baina ez da puskatu. Ezin dut plastikozko begirada hotz hori gehiago jasan.

Panpina niri begira dagoela iruditu zait eta so egin diodanean begirada beste norabait zuzendu du.

- *Behin eta berriz esan dinat isilik egoteko. Ez garela itsasontzi zahar honetan hilko. Azkenean iritsiko garela aukeren lurraldera; azkenean zoriontsu izango garela.*

Panpina xaharrak ez dit erantzun baina badakit ulertu didala. Ahoan duen irribarre trufariak ezinegona sortzen du ordea ene baitan. Ostera ere torturatuko ote nau bere oihu gaiztoekin?

Badirudi nire pentsamendu ilunenak irakurtzen dituela; nire beldurra erabiltzen duela nire aurka bera lasaiago geratzeko.

Erotzen hasi ote naiz?

Ilunabarra nire bihotzaz jabetzen ari da, egunaren hondarrean itzala argiaz jabetzen den legez baina argiak iluna behar duen bezala, itxaropenak ere beldurra behar du.

Ekaitza da berriz ere kanpoan, urak izugarrizko kolpeak ematen ditu itsasontzian eta ni hara eta hona nabil, nire gorputza trapuzkoa izango balitz bezala.

Panpina berriz hasi da oihuka; ezin dut gehiago jasan, gehiegi da niretzat... Ura panpinaren trapuzko hezurretara iristen ari da baina hotzak ere ez du panpina isilaraziko, badakit, irribarrea du ahoan.

Bazter ilun batetara bota dut panpina malapartatu hori baina ezin dut txikitako laguna horrela botata utzi eta berriz hartu dut nire besoen artean. Ekaitza izugarria da; inoiz ez dut horrelakorik ikusi, olatuek batera eta bestera mugitzen dute gure batel txikia, oihuak entzuten ditut baina ez dakit norenak diren; egiazkoak ote diren.

Hotz naiz; gose, egarri.

Lasaitu da panpina baina ekaitzak hor darrai, beste gorpuren bat nahi du, oraindik ez da asetu. Panpina botatzea iruditu zait ideia hoberena, horrela ez da nire bila etorriko eta trapu zahar hau behingoz isilduko da; ez du gehiago oihurik egingo, ez eta amak txikitan abesten zidan kantua abestuko. Panpina, nire asmoez jabetu izan balitz bezala, biraoka hasi da, bera gabe ezer ez naizela esanaz, bizirik irauteko nire alboan behar dudala.

Halako batean besoez ahal dudan urrunen bota dut itsasontzitik uretara baina, ezin dut askatu, ni baino indar handiagoa du, bere hatzaparren artean hartu du nire esku hotza. Ni ere banoa uretara, agian egia zen; bera behar dut bizirik irauteko, bera gabe ez naiz ezer. Pertsona orok dituen beldurren lekuko da panpina zaharra. Inork ezin ditu bere beldurrak atzean utzi, eurekin

bizitzen ikasi behar da eta nik ez dut horrelakorik lortu.
Errudun naiz.

Agian burua galtzen ari naiz.

Dagoeneko berandu da; ura hotz dago, nire garrasiak olatuetan itotzen dira. Inork ez nau entzuten, panpinak gogor heltzen dit eskutik. Orain ere badaki zer pentsatzen ari naizen...